

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2012ko irailaren 27a. IX. urtea. 2.406. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Jende asko bildu zen atzo arratsaldean, Tolosako Trianguloa plazatik atera zen manifestazioan; Euskal Herrian murrizketarik ez! zioen pankarta zeramaten. LURKIZU

«Aukera bakarra kalea da»

Tolosaldean zein Leitzaldean jarraipen zabala izan du greba orokorreko deialdiak; lantoki ia guztiak itxi egin dituzte eta langileek «oso erantzun ona» eman dute

Tolosan eta Leitzan arratsaldean egin zituzten manifestazioak; jende asko bildu zen bietan Espainiako Gobernuak burutu dituen murrizketen kontra egiteko **2-5**

Emakume bat bortxatzen saiatu ziren asteburuan Irura eta Tolosa artean

Emakumeak salaketa jarri du Ertzaintzan eta eraso ikertzen ari dira; Bilgune Feministak gizarte osoari egin dio dei «horrelako gertakizunen aurrean eskuak gurutzaturik gera ez dadin eta argi adierazi dezan erasotzaileen aurrean horrelakorik ez duela onartuko» **7**

Ondasun gehien duten tolosarrek gehiago ordaindu beharko dutela dio udalak

Datorren urteko aurrekontu aurreikuspenak defizitarioak dira; ekarpenak jasozeko batzarrak egingo dituzte, lehena urriaren 3an izango da **6**



Alde Zaharretik abiatu zen manifestazio jendetsuari jendea gehitu zitzaion plixkana, eta ehunka lagunek protesta egin zuten Tolosan. E. MAIZ

Ehunka herritarrek kalea bete dute murrizketen aurka

Eskualdeetako jarraipenarekin gustura azaldu dira sindikatuak, eta «jendeak mezua ondo ulertu» duela nabarmendu dute

Tolosako nahiz Leitzako mobilizazioetan ehunka herritarrek protesta egin dute

Itzea Urkizu

Espainiako Gobernuak ezarritako murrizketen aurka antolatutako greba orokorrak jarraipen zabal izan du bai Tolosaldean eta baita Leitzaldean ere. Lanuztearekin bat egitearekin batera, langileak kalera atera ziren atzo, eta Tolosan arratsaldean izan zen manifestazioan adin guztietako ehunka herritar elkartu ziren. Alde Zaharrean barrena abiatu zen mobilizazioa, *Euskal Herrian murrizketarik ez!* lelopean.

Leitzan ere parte-hartzea altua

izan zen, eta 300 pertsona inguru irten ziren kalera; gainera, goizean auto karabana egin zuten Areso eta Leizta artean.

Horiek horrela, langileria erantzunarekin gustura azaldu dira ELA eta LAB sindikatuak, eta gizarateak «mezua ondo ulertu» duela nabarmendu dute: «Jendeak badaki aukera bakarra kalea dela».

Sindikatu enbalarazioa

Lehen balorazioetan gustura azaldu zuten euren burua, ELA-ko ordezkari Egoitz Iturbek eta

LABeko Mari Mujikak. Biek ala biek nabarmendu zuten, eskualdean grebak ia erabateko jarraipena izan zuela: «Grebaren aurretik egindako batzarrak oso-oso ondo joan ziren, eta espero genuen langileek erantzun ona ematea», azaldu zuen Mujikak.

Iturbek, berriz, lanuzteak sektore guztietan eragina izan zuela azpimarratu zuen: «Saltokiak, industriaguneak nahiz ikastetxeak, guztia itxia dago Tolosaldean,

eta oso pozik gaude gizaratearen erantzunarekin».

Bide beretik, goizean Donostian izan zen manifestazioak «mila» pertsona elkartu zituela nabarmendu dute eskualdeko ELA eta LABeko ordezkariak.

«Ez da erraza kalkulatzeko, baina jendetza bildu gara Donostian. Gure eskualdeari zegokion manifestazioko zutabeen, ordezkari asko eta asko izan dira; 4.000 edo 5.000 pertsona izango ginen»,

azaldu zuen Iturbek. Hasieran «beldur pixka bat» bazutela onartu zuen arren, oso gustura azaldu zen ELA sindikatua.

Halaber, LAB sindikatuko ordezkari Mari Mujikak, Donostian «harrিতa» geratu zela azaldu zuen: «Kargarrizko jendetza elkartu gara. Pentsa, manifesta-

Gazterien parte hartzea altua izan dela nabarmendu dute sindikatuek

zioa bukatu, EHNE, EILAS, ELA eta LABeko ordezkarien mintzaldiak amaitu, eta artean, Antiguotik zetorren kostaldeko manifestazio-zutabea iristen ari zen».

Adegi patronalak, bere aldetik, murrizketen aurkako grebak jarraipenik zabalena Tolosaldean izan zuela azaldu zuen bere adierazpenetan.

↓ Aldarrikapenak

- Bankari diru gehiago ez ematea.
- Euskal erakundeek murrizketak ez aplikatzea.
- Politika publikoetan errotiko aldaketa.
- Euskal erakundeak Madrilgoen menpeko ez izatea eta gizaratearen zerbitzura jartzea.

↓ Alternatibak

- Espainiako Gobernuaren erabakiak ez aplikatu.
- Euskal erakundeetako aurrekontuetan ezarritako murrizketa bertan behera utzi.
- Krisi egoeratik ateratzea ahalbidetuko duen plan integrala proposatu.

Irudia o Tolosa



ESKUALDEKO GAZTEEN GREBARAKO DEIA

Tolosaldeko 90 gazte elkartu ziren, herenegun, Trianguloa plazan, greba orokorrerako deia egiteko. *Gure etorkizuna jokoan dagoelako, murrizketarik ez!* lelopean, egungo egoera irudikatu zuten, politikari, bankari eta agintarien «zapalkun-

tza» parodiatuz. Horretarako, langilea, ikaslea eta baserritarra irudikatu zituzten, zapaltzaileen gurditik tiraka. Bertaratutako gazteek, azkenik, greba orokorreko mobilizazioetan parte hartzeko deia egin zuten. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

la erabateko jarraipena izan du grebak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko ia enpresa eta saltoki guztiak bat egin zuten atzoko greba orokorrarekin

Imanol Garcia Landa

Tolosaldeak eta Leitzaldeak atzo erakutsi zuen itxura ez zen ohiko ostegun batena izan: industriguneetan ez zen jarduerarik sumatzen eta kaleak ia hutsik zeuden. Greba orokorraren deialdiari erantzunez, ia enpresa eta saltoki guztiek atea itxi zituzten. Bestalde, eraikuntza eta herrilanen arloan ere greba nabarmendu zen, eta garabiak zein hondeamakinak geldirik egon ziren.

Udaletxeek, eskolek eta osasun zentroek ere jarduera eskasa izan zuten, eta hori, batez ere, udaletxeetan nabaritu zen, bi eskualdeetan itxita egon baitziren. Eskolei eta osasun zentroi dagokionez, gutxieneko zerbitzuak izan ziren. Eskoletara orokorrean ez zen haurrik joan. Osasun zentroetan, gutxieneko zerbitzuak zirela eta, ez ziren eguneroko kontsultarik izan eta, beraz, larrialdiko kasuak bakarrik artatu zituzten. Ohikoa baino dei gutxiago jaso zituzten osasun zentroetan, eta kontsultak zituzten pertsona

gehienak ez ziren hitzordura joan.

Saltoki txikien erantzuna grebarekin bat egitea izan zen. Tolosan, Ibarra, Villabonan eta Leitzan, esaterako, itxita zeuden eta jai egunetako itxura zuten kaleek. Izan ere, Espainiako Gobernuaren azken erabakiek eragin handia suposatzen dute saltoki txikiarentzat, besteak beste, ordutegien liberalizazioa bultzatzen baitute. Ostalariek ere greba babestu zuten, eta hainbat tabernatako terrazak hutsik egon ziren atzokoan, kaleko jarduera geldirik zegoenaren sentsazioa areagotuz. Tolosa&Co elkarteak, esaterako, egoera «larria» dela adierazi zuen greba egunaren aurretik bidalitako oharrean: «Murrizketak kolpe larri bat izan dira hiri merkataritzaren iraupenerako».

Hondakinen bilketan ere bat egin zuten grebarekin eta herenean gauetik atzo gauera arte ez zen bildu hondakinik. Hala, atzo egunean zehar zenbait edukiontzi gainezka ikusi ahal izan ziren. Bestalde, garraio publikoan gutxieneko zerbitzuak izan ziren eta, esaterako, Tolosa-Donostia ibilbidea egiten duten autobusek *Gutxieneko zerbitzua* zioten kartelak zeramatzaten itsatsita ibilgailuaren aurrealdean zein atzealdean.



Tolosako Korreo kaleko saltokiak itxita, atzo goizean. I.G.L.



Amasa-Villabonako Kale Nagusia hutsik, atzoko greba orokorrean. I.G.L.



Garraio publikoan gutxieneko zerbitzuak izan ziren. I.G.L.



Zenbait edukiontzi, atzo, hondakinez gainezka. I.G.L.

Irudia ◉ Tolosa



EDUKIONTZI BAT ERRE DUTE USABALEN

Tolosako Usabal industrialdean edukiontzi bat erre zuten, atzo goizean. Ertzaintzak azaldu duenez, 07:30ean izan zen gertaera. Erretako edukiontzia hondakinak industriguneko errepide baten erdian zeuden, eta Ertzaintzak zintaz inguratu zuen lekua. Bestalde, foruzainek bi gazte

identifikatu zituzte Leitzan, atzo goizeko ordubatean, herriko zenbait banketxeri pintura bota zietelakoan, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuenez. Caja Navarra, Caja Rural eta Banco Santander banketxeetako kutxazain automatikoei bota zieten pintura. I.G.L.

Bosgarren greba orokorra azken lau urteetan

Egoera ekonomikoari «krisi» deitu zaionetik, sindikatuek gutxienez greba deialdi bat egin dute urtero

Imanol Garcia Landa

2009tik hasita, eta atzokoa kontuan hartuta, bosgarren greba orokorra deitu du euskal gehiengo sindikalak. Urtero deialdi bat egin dute eta urten martxokoaz gain, atzokoa gehitu behar zaio. Bestalde, 2010ean greba deitu zuten funtzio publikoan.

2009ko maiatzak 21. Greba orokorra antolatu zuten ELA, LAB, EILAS, EHNE eta Hiruk, «bestelako eredu sozio-ekonomikoaren alde». Grebaren deialdiarekin «enpleguaren deuseztatzea eta patronalaren etengabeko xantaxa salatzea» zuten helburu, eta horrez gain, «administrazioen aurrekontu eta gizarte politikei kritika egitea». Bestetik, «krisiari Euskal Herriatik erantzunak emateko erremintak izatea» exijitu zuten deialdi horretan.

2010eko maiatzak 25. ELA, LAB eta EILAS sindikatuek greba deitu zuten arlo publikoan. «Zerbitzu publikoen desegitea eta

honek euskal gizartearentzat dituen ondorioen aurrean» egin zuten deialdia. Hauek ziren arrazoietakoz: «Besteak beste, neurriek lehen aldiz beraiekin dakarte soldaten murrizketa ekainetik aurrera, hauen izoztea 2011. urterako eta zerbitzu eta enplegu publikoan gaineko mehatxu larria. Botere ekonomikoak esparru guztietan, baita Euskal Herriaren ere, arlo publikoa eraitsi eta pribatizatzeak aurrera eraman nahi duen estrategiaren parte da hau».

2010eko ekainak 29. Langileen eskubideen aldeko greba orokorra deitu zuten ELA, LAB, ESK, EHNE, EILAS eta Hiru sindikatuek. Ezker abertzalearen, EAren, Aralarren eta Alternatibaren babesa jaso zuten. Langileen eskubideak defenditzeko eta erreforma salatzeak asmoz egin zuten deialdia, hain justu, Espainiako Gobernuak laster onartuko zuen lan erreformaren kontra egiteko. Sindikatuen arabera, «patronalak beti egiten dituen eskaerak onartu dituzte lan erreforman: langileak erraztasun osoz eta oso merke botatzeko aukera ematea, kaleratzeetako kalte-ordainak diru publikoarekin finantzatzea eta gazteak eta emakumeak esku-biderik gabe eta soldata lotsagarriekin edukitzea».



Amasa-Villabonako denda bat itxita, atzoko greba orokorrean. IGL

2011ko urtarrilak 27. Espainiako Gobernuaren pentsio erreformaren aurkako greba orokorra deitu zuten gehiengo sindikalak. Ezker abertzalearen, EAren, Aralarren eta Alternatibaren atxikimendua jaso zuten. Hauek ziren arrazoietakoz: erretiro adina 67 urtetara luzatzea; pentsioa izateko beharrezkoak diren kotizazio urteak handitzea; oinarria kalkulatzeko urte gehiago hartzea kontuan; jasotzen den diru kopurua murriztu, kotizazio urteen arabera; eta pentsioek eros ahalmenera eusteko betebeharra ezabatu. «Pentsio sistemaren uesteko porrota sistema publikoarekin amaitzeko aitzakia baino ez da», salatu zuten grebara deitu zuten sindikatuek.

2012ko martxoak 29. Espainiako lan erreformaren aurkako greba orokorra deitu zuten. CCOO eta UGTk ere Espainiako Estaturako deitu zuten egun bererako. Lan erreforma hori «langileria-aren aurka azken hamarkadetan ezagututako erasorik bortitzena» dela esan zuten: «Lan erreforma honek hankaz gora jartzen du lan harremanak arautzen zituen oinarriko legedia. Aurreko gobernuak ezarritako erreforma guztiak baino gogorragoa da, haratara; eta erabateko hautua egiten baitu enpresari alde lan harremanak ezartzerakoan». Sindikatuek salatu zituzten neurrietako batzuk: kaleratzea errazagoa eta merkeagoa; neurritz kanpoko malgutasuna; negozio kolekti-

borako eskubidea ahultzea; kalitate eskaseko enplegua sustatzea; aldi baterako laneko enpresentzat botere gehiago; eta edoskitze baimenean muga berriak.

2012ko irailak 26. ELA, LAB, ESK, EHNE, EILAS, CGT eta CNT sindikatuek eta hainbat gizarte eragilek egin dute greba orokorraren aldeko deia.

Hauek dira azaldu dituzten arrazoi nagusiak: langabetuen eskubideei eraso; Fogasako bermeen murrizketa; administrazio publikoko langileen eskubideei eraso; fiskalitate erregresiboa; menpekotasuna duten pertsonen eskubideen murrizketa; ordutegien liberalizazioak eta pribatizazioak.

Grebetan langileek ematen duten erantzuna nabarmendu dute

I. Garcia Landa

Sindikatuek azken greba orokorreran langileen erantzuna nabarmendu dute eta azken urteetan agintariak hartu dituzten erabakien aurka azaldu dira. «Lehenengo greba orokorrerako deialdian esan genuen politikak ez baziren aldatzen erreformak eta desestruturazioa etorriko zirela, eta hori gertatzen ari da. Egungo agintari politikoez dute borondatearik bere politikak aldatzeko», azaldu du Egoitz Iturbek ELAko eskualdeko koordinatzaileak. Krisia baino, egungo egoera «langileentzako, eta gizartearentzako, oro har, lapurreta bat da», gaineratu du Iturbek.

Mari Mujika LABeko koordinatzaileak azaldu duenez, «hartu dituzten erabakiak jarraipen bat izan dute. Argi genuen erabaki

horiek ez zutela bermatuko langileen lan baldintzak, eta denborak hori erakutsi du: langileen lan baldintzak izorratu egin dituzte, langabezia areagotu egin da ikaragarri, eta esaterako, Tolosaldean hiru mila langabetutik gora daude». Kapitalari «etekinak bermatu» dizkiotela dio Mujikak, eta erreskatearen ondoren «baldintzak are gehiago okertuko dira», esan du. «Zoritxarrez, honek maldan beherako joerak jarraituko du: gero eta enpresa gehiago erregulazio egoeran, jendea kaleratzen, lan baldintzak okertzen... Daramagun bide honek ez du inongo bukaerarik», dio Mujikak.

Eskualdean greba orokorreran langileen erantzuna «oso positibo» izan dela dio Iturbek: «Jendeak argi du erruduna zein den, eta egiten den salaketa oso garrantzitsua da guretzat. Nahiz eta

gobernuak eta enpresaburuek gizarteari beldurra helarazi, jendea kalera ateratu da». Iturbek dio «oso garrantzitsua» dela «jendearen kontzientzia lantzea eta baloreak berreskuratzea. Gauzak ez dira indibidualki lortzen, ikuspegi kolektiboa behar da».

Mujikak aurrera begira zer egin behar den nabarmendu du: «Langileek gero eta garbiagoa dute zein egoeretan gauden. Horrez gain, ikusi behar dugu krisiak gertatzeko eta areagotzeko asmoa duela. Tolosaldean hamar urte barrurako zer egin behar dugun pentsatu behar dugu, eta horretarako esparru guztietako eragileen inplikazioa behar da. Madrilgo erabakien menpe gaude, eta guk esaten duguna da Euskal Herriaren erabaki behar dugula. Bestela, ez daukagu etorkizunik».



Laster...

planik onenak egunero, bertatik bertara!

Egun-pasak familiarekin, jatetxeak, abentura, kirol ikuskizunak, antzerkia, estetika... merke-merke eta eskura

Abantailak izena ematen duten lehenengoentzat

Urriaren 31 baino lehen izena ematen baduzu, parte hartuko duzu Kanaria uharteetara astebete doan joateko zozketan.

Eroski bidaiak agentziaren eskutik

EROSKI bidaiak
merke duzu

www.mauka.eu

mauka: erraz lortzen den gauza oso onuragarria.
Hiruak Hitzari Eraklapediko

berria
taldea

Zergak eta tasak berrikusiko ditu udalak 2013ko aurrekontuetarako

Aurrekontu parte hartzaileak osatze bidean, urriaren 3an antolatuko dute lehen herri batzarra

Iztea Urkizu

Datorren urteko aurrekontuak osatzeko, zergak eta tasak berrikusiko dituela azaldu dute udal gobernuko Ibai Iriarte, Inaki Irababalbeitia eta Lore Agirrek. Izaera sozialari eutsiko diotela nabarmendu dute, eta beraz, «gehien duenak gehiago lagundu behar-ko» duela azaldu dute.

«Herritarrek udalaren ekonomia eta finantza egoeraren jakitun izan behar dute», hala azaldu zuen Iriarte alkateak. Horrela beraz, eta «bereziki krisi egoera honetan», ezinbestekotzat jo dute Bildu eta Aralarrek osatutako udal gobernuo kideek, herritarrek eurek aurrekontuen osaketan parte hartzea.

Proposamen hau bermatze aldera, beraz, datorren urriaren 3rako antolatu duten lehen herri batzarra, 20:00etan, Topic zentroko aretoan. Herritarrei informazioa helarazi eta euren ekarpenak jasotzea izango da bilkurako funtsa. Bide beretik, ordenantza fiskalen eztabaida eta berrestea ere herritarrekin elkarlanean egitea proposatu du Bildu-Aralarren udal gobernuak, eta datorren urriaren 23ko batzarrean egingo dute hori.

Aurrekontua «kontrolpean»

Lore Agirre Tolosako Udaleko Ogasun Saileko zinegotziak, 2012ko aurrekontua «erabat kon-

trolpean» izan eta mantentzea lortu dutela nabarmendu du, horrek, Iriarte alkatearen arabera, «egunero-egunero udalaren kontuak begiratzea ekarri badu ere».

Iaz, murrizketak saihestea eta gastu sozialari eustea helburu moduan zehaztu zuten, eta Lore Agirrek, lortu dutela nabarmendu du; aurtengo diru-sarrerara aruntek, beraz, gastu arruntari aurre egingo diote.

Hala ere, 2012ko aurrekontua negatiboa izango da Tolosako Udalean (2.626.698 euro). Honi dagokionez, udal gobernuak bereziki azpimarratu nahi izan ditu Elosegi parkeko eta Sana Luzia auzoko lursailen desjabetzeak; Ibai Iriartek gogora ekarri nahi izan die herritarrei, «Elosegi parkearena 1989az geroztik datorren kontua dela, eta behartuta gaudela zor hori ordaintzera, auzitegiko epaiak hala esanda».

Bilduk eta Aralarrek osatutako udal gobernuo kideek, 2013. urterako aurrekontu aurreikuspenak ere ezagutarazi zituzten, aurrezki garbia negatiboa izango dela azalduz.

Besteak beste, udal zerga eta tasa guztietan aplikatuko duten KPIaren igoera, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpeneko %5eko jaitsiera izan dira, datorren urteko aurrekonturako irizpide nagusiak. Horrela beraz, diru sarrera gutxiago izango lituzke Tolosako Udalak, 2013ari aurre egiteko.

Gastuei dagokionez, berriz, hauek murriztea aurrekusi duten arren, aurrekontuaren emaitza defizitarioa dela azpimarratu du Lore Agirre zinegotziak (2.119.474 euro): «Egoera honetan, diru sarrera arruntekin gastu



Inaki Irababalbeitia, Ibai Iriarte eta Lore Agirre, agerraldian. I. URKIZU

arruntei aurre egiteko ez gara gai izango».

Irizpide sozialeko neurriak

Egoera honen aurrean, zenbait neurri aurkeztu ditu udal gobernuak, «betiere murrizketak

2012ko aurreikuspenak bete, eta aurtengo aurrekontua «kontrolpean» da

Gehien dutenek gehiago lagundu behar du udal gobernuak

saihestuz eta eskubide sozialak bermatuz». Neurrietan nabarmena, Tolosako Udalaren ohiko diru-sarrera propioak handitzearena izango da, eta horretarako, udal zergak nahiz tasak berrikusetea proposatu dute.

Neurri honek «herritar guztiei ahalegin berezia» eskatuko dietela jakitun, zerga eta tasen igoerarako irizpidea soziala izango da. Horrela beraz, errentarik altuenak dituztenek gehiago ordaindu behar dute, errenta baxuagoak

dituzten tolosarrek baino. Hau dela eta, Bilduk eta Aralarrek, ondasun higiezinaren gaineko zergak, plusbalioak eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergak gainbegiratzeko proposatu dute.

Bestalde, udalaren ezohiko diru-sarrerak handitzearena ere proposaturiko aukeretako bat da, eta hemen, udalaren ondasunak saltzea proposatu dute, Kondeaneko Aldapako orubea, kasu. Neurri hauekin guztiekin, 2.119.474 euroko zorra 567.996 eurora jaistea espero dute.

Ondare «negargarria»

Ibai Iriarte alkateak, egoera honen irakurketa politikoa egin zuen, eta, besteak beste, udal gobernuak «ondare ekonomiko ne-

gargarria» jaso duela nabarmendu zuen.

Honen harira, 2003 eta 2011 arteko bi legealdietako zenbait datu eskaini zituen. Udalaren funtzionamendu gastuak %57,41 igo zirela azpimarratu zuen eta, aldez, epealdi berean, diru-sarrerara arruntak %32,65 igo zirela. Honenbestez, Tolosako Udalaren zor bizia 30 aldiz handitu dela nabarmendu nahi izan zuen alkateak.

Ondare ekonomiko honen aurrean EAJko udal taldeak hartutako jarrera «arduragabetzat» jo dute udal gobernuo kideek, eta «mingarria» suertatu zaie: «Zerbakiak gorriak dira; datuek erakusten dute zein den egoera, eta dirua da falta dena, ez ideiak».

↓ Aurrekontua

-2 milioi

■ **-2.119.474 euro.** 2013. urterako aurrekontu aurreikuspenak defizitarioak dira, eta zinegotziek azaldu dutenez, «neurririk hartzen ez bada», udalak ezingo dio urteari aurre egin.

↓ Neurriak

■ **Udal zergak eta tasak berrikusi.** Herritarren errentaren araberakoa izango da igoera. OHZ, plusbalioak eta JEZ berrikusiko dituzte.

■ **Udalaren diren ondasunak saltzea.** Higiezinak lehentziko dituzte, adibidez, Kondeaneko aldapako orubea.

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Bortxaketa saiakera salatu du emakume batek

Iruratik Tolosarako bidean gertatu zen eraso igande goizaldean; Ertzaintzak ikerketa zabaldu du

I. Terradillos

Emakume bat bortxatzen saiatu ziren iragan asteburuan Iruratik Tolosarako bidean. Ertzaintzak jakinarazi duenez, igande goizaldean gertatu zen eraso, eta ikerketa zabaldu dute. Emakumeak salaketa jarri du bortxaketa saia-

keragatik. Era berean, biolentzia-ekin eginko lapurreta ere salatu du, diru-zorroa lapurtu izanagatik.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK jakin duenez, igande goizaldean Iruratik Tolosarako bidean, Hernialderako bidegurutzearen inguruan gertatu zen uestezko eraso. Antza, inguruan igarotzen ari ziren pertsona batzuen ahotsak entzunda ihesari eman zion erasotzaileak, eta alde egin ahal izan zuen emakumeak.

Tolosaldeko Bilgune Feministatik «elkartasun eta babes osoa» adierazi diote emakumeari, eta

gogor salatu dute eraso. Era berean, adi egoteko deia egin dute: «Adi jendarte osoari, horrelako gertakizunen aurrean eskuak gurtzaturik gera ez dadin eta argi adierazi dezan erasotzaileen aurrean horrelakorik ez dugula onartuko, ez ditugula erasotzaileak gure artean onartuko».

Bilgune Feministak azaldu duenez, «emakumeen askatasuna mugatua ikusi da beste behin». Indarkeria mota hau «gure gizartean gertatzen den giza eskubideen urraketa larrietako eta hedatuenetakoa» dela uste dute, eta horregatik, eu-

ren lana eta erakundeena eraso hauek ez gertatzeko bideratu behar dutela diote.

Erakunde publiko politikoei erantzukizunez jokatzeari exijitzen die Bilgune Feministak: «borondate politikoa, martxan jarritako neurriak aurrera eramateko aurrekontuak onartzea, kasu guztien gaineko jarraipen zehatza egitea eta euren arteko koordinazioa lantzea oso garrantzitsua dela uste dugu emakumeon aurkako eraso oro ekiditeko».

Emakumeek berriz, eraso hauei «iniziatibaz» egin behar dietela aurre diote: «Ezinbestekoa deritzogu emakumeok antolatzea, gure artean babestea, taldean eztabaidatzea eta espazio komunak eraikitzea. Emakume guztien eta jendarte guztiaren indarraz ez dugu bat gehiago pasatzen utziko», adierazi du.

Ikaztegietako lursail batean animaliek bizi duten egoera salatu dute

I. Terradillos Ikaztegieta

Animalien aldeko alderdiak (PACMA) Gipuzkoako Ingurumenaren Fiskaltzaren aurrean salaketa jarri du Ikaztegietako lursail batean zenbait animalik bizi duten egoera «tamalgarriarengatik». Euren arabera, poney bat, behor bat, txerri bat eta asto bat «janaririk eta urik gabe» dituzte, eta «berebiziko garrantzia du lursailetik atera, eta bizitzatza duintzat emango zaien lekura eramate».

Preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa ari dira eztabaidatzen

Eskualdeko hainbat herritar onartu dituzte; baldintzapeko askatasuna eskatzen dute preso gaixoentzat

I. Terradillos

Bilduk aurkezturiko preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa ari dira eztabaidatzen egunotan ohiko bilkuretan. Ibarra eta Tolosan, esaterako, astearte iluntzean onartu zuten mozioa, eta Leitzan biharko osoko bilkuran eztabaidatuko dute.

Josu Uribeberria preso arrasatearra «berandu bada ere», legea bete baldintzapeko askatasun egoeran geratu dela dio mozioak, baina, hala ere, badirela oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak gogoratzen du. «Hamahiru herritar dira, hain zuzen, eta egoera honen beren egoera fisikoa eta senitartekoaren ezinezona okertu eta areagotzen du, pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz».

Hala, nazioarteko eta Espainiako legedia oinarri hartuta, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru euskal presoekin bal-

dintzapeko askatasuna eskatu dute mozioa onartu duten udalek, «beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten, eta egoera honen, bai beraientzat bai eta senideentzat ere, zigor gehiagarria suposatuz ez dezan».

Era berean, «indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginez», urrats errealek emateko deia egiten diete udalek Madrileko Gobernuari. Gainera, hartu duten erabakiaren berri Madrileko barne ministeritzari eta kartzela zaintzako epaileari emango diotela dio mozioak.

→ Laburrak

Osoko bilkura izango da bihar, Leitzako udaletxean

LEITZA › Ohiko osoko bilkura egingo dute bihar, Leitzako udaletxeko batzar aretoan, 21:00etan hasita. Besteetan artean, preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa onartuko dute.

Konpostaje ikastaroa emango dute etzi goizean

LIZARTZA › Lizartzako Udaletik adierazi dutenez, konpostaje ikastaroa eskainiko dute, etzi, Lizartzako frontoian. 10:30ean hasiko da ikastaroa.

Hileroko itzulia egingo du Langostino elkarteak

IBARRA › Igande honetan egingo dute hileroko moto itzulia Ibarako Langostino moto kultur elkarteak. Ibaratik irtengo dira, eta Berastegi, Leiza, Basakabi, Goizueta eta Hernani igarota Donostiara ailegatuko dira, eta han Chopper tabernan egingo dute hamaiketako. Izena emateko langostinomotofesta@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Konpostatzen ikasteko ikastaroa antolatuko dute

BERROBI › Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak ikastaroa antolatu nahi du Berrobin konpostagailua nola erabili erakusteko. Ikastaroa doakoa izango da, eta bertan parte hartzen dutenek konpostagailua jasoko dute opari. Interesatuak urriaren 5a baino lehen eman beharko dute izena Berrobiko udaletxean. Bertatik herritar guztiak animatu dituzte ikastaroa egitera.

Uso postuen bigarren enkantea egingo dute etzi, Areson

I. Terradillos Areso

Uso postuen bigarren enkantea egingo dute etzi, Areson. Udaletxean izango da, 19:00etan hasita, eta bertan, behin betiko izaeraz esleituko dituzte Urteaga mendian kokaturiko postuak.

Lehenengo enkantea iragan larunbatean egin zuten. Aresoko Udaletik adierazi dutenez, ez zen espero zuten adina ehiztari bildu, eta «nahiko lasaia» izan zen enkantea. Bada, lehen enkantea egin ostean, sesteoa egiteko aukera izan dute aste honetan zehar ehiztariak, hau da, postuengatik diru gehiago eskaini ahal izan dute. Postuen ezaugarrien arabera, hiru multzotan sailkatu dituzte, eta hasierako prezioak 150, 300 eta 600 eurokoa izan da.

Aurten neurri berri bat jarri du abian Aresoko Udalak. 50 euroko fidantza ordainduko dute ehiztariak, eta denboraldi amaieran itzuliko zaie, postua eta mendia txukun mantentzen badute.

Irudia ◊ Ibarra



SASKIA BANATU DU MISIO TALDEAK

Iragan igandean Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezia egin zuten, eta bertan bi postu jarri zituen Ibaratik Misio Taldeak. Laguntzen dituen proiektuen inguruko informazioa eta gastronomia eta

artisansaia produktua jarri zituzten. Horrez gain, saskiaren zozketa ere egin zuten. 582 zenbakidun txartela izan zen irabazlea, Debako Joseba Lazkanok zuena, hain zuzen ere. HITZA

2012ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA ARESO(NAFARROA)

TEL 948-510 327-608-928 626

Donostiatik 20 minututara Paradetaraino sarbidea kotxez

Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan burutuko da.

1go enkantea: irailaren 22an, larunbata, 19:00 ordutan
2. enkantea: irailaren 29an, larunbata, 19:00 ordutan



21°
11°

GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	20°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosalde.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Oier Gastesi Tolosa. 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez eta, batez ere, Eneritz eta Uxuen partez.

XVI. Argazki Lehiaketa



MENDIAN ZEIN ITSASOAN, GUSTURA

Iñaki Ulazia Zuriarrain Frantziako Alpe inguruan ibili zen uda partean: «Argazkian Lac Blanc ikusten da Mont-Blanc duelarik parez pare. Benetan paisaia ederra». Leitzaiko Juan Luis Artola, aldiz, Cadizko (Andaluzia, Espainia) Trafalgaren atera-

takoa irudia aukeratu du lehiaketan parte hartzeko eta *skimboarding* egiten ari den gazte bat ikusi daiteke. Hector Luna, aldiz, Ekuadorko Quiton izan zen eta Catequilla mendian ateratako argazkia aukeratu du. II-JULIA-HL

Agenda

DEIALDIAK

- **Bidegoian.** Kultur Astearren barruan, gaur, 21:00etan, *Euskal Herria bere osotasunean* hitzaldia, udaletxeko batzar aretoan.
- **Berrobi.** Udalak konpostagailua nola erabili behar den jakiteko izango den ikastaro batean parte hartzeko deia egin die herriarrei. Ikastaroa Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak eskainiko du, doan, eta parte hartze-agatik konpostagailua oparitu-ko dutela esan dute. Izena udal-letxean eman behar da, urriak 5 baino lehen.
- **Ibarraldea.** Gaur gripearen kontrako txertoa hartzeko deia egin dute Elduainen (13:00etatik 14:00etara) eta Berrobin (09:00etik 10:00etara). Lizartza, Berastegi eta Ibarra egunero emango dute urriaren 31 bitarte. Osakidetza herri guztietan alde aurretik ordua eskatzea gomendatu du.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidor aretoan zine forumaren barruan, gaur, *El hombre de Londres* ikusi ahal izango da, 19:15ean eta 21:45ean.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Arregi Jatetxea

Bi laguntzako bazkaria edo afaria

Herriko enparantza, 7
Berastegi
Tel.: 943 68 30 59



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 Mikel Izagirre

Ile mozketa bat

Gorosbel, 27 behea
Tolosa
Tel.: 943 67 52 49



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Zabala sagardotegia

Bi sagardo kaxa

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943 69 07 74
www.rzabala.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 EUREKA! zientzi museoa

Bi laguntzat bina sarrera

Mikeletegi, 43-45
Donostia
Tel.: 943 01 24 78



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.